

BERRIGARA

124. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, urriak 29

**AUTOPISTAREN
AURKAKO
PLATAFORMA
SORTU BERRI
DA**

**GIZA
ORGANOAK
JASO
DITUZTEN
HERRITARRAK
MINTZO**

KIROLAK

**EGURALDI
TXARRA,
PARTAIDETZA
HAUNDIA
FONTSI
MEMORIALEAN**



**UDAZKEN KULTURALA:
Musika protagonista**

**MINIA
NORMALA
LUJOZKOA
LUJO HAUNDIKOA**

KIÑU

**KODAKen
ARCO
IRIS**

BARREKALE, 35
☎ 76 58 05

2 X 1



12+12 ARGAZKI
963 pzta.
24+24 ARGAZKI
1.551 pzta.
36+36 ARGAZKI
2.139 pzta.

+BEZ



IRALA
AHOLKULARITZA



- **TRAMITAZIO SOZIAL ADMINISTRATIBOA** •
- **TRAMITAZIO ETA KUDEAKETA FISKALA** •
- **KONTABILITATE OROKORRA** •
- **KONTABILITATE JURIDIKO-LABORALA** •
- **ASEGURUAK** •

Irala kalea, z/g BERGARA. Tfnoa: 76 33 72. Faxe: 76 57 85.

— ARTE —
AZCOAGA

Altzari, Erregalu, Apainketa eta Proiektuak

Gogoko egingo zaizun proiektua.

Orain, zure etxerako aspaldidanik amesten duzun proiektua egiterakoan, hurrengo **hamabi hilabete**tako interesik gabeko finantziazioa lortuko duzu. Eta gainera inongo Banku edo Kutxatik pasatu gabe. Interesgarria ezta? Etor zaitez bisitatzera.

Gral. Alava, 32. TEL: 23 03 69 - VITORIA-GASTEIZ

Argitaratzailea:
Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Eburne Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:
Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereibar, J. M. Elxepuru, J. Oregi, Maripi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Inarra eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK



Udazken Kulturalari hasiera emango zaio datorren astelehenean *Exaudi* La Habanako abesbatzaren eskutik, arratsaldeko 8etan Seminarioko elizan. *Exaudi* abesbatza 1987an sortu zen eta ordutik hainbat sari lortu ditu jaialdi ezberdinetan. Bertako abeslariak La Habanako musika irakas-kuntzarako ikastetxe desberdinetako irakasle eta ikasleak dira. Udazken Kulturekin jarraituz, azaroaren 14an *Goaz* antzerki taldeak "*Pernando, bizirik hago oraindiko*" lana antzestuko du.

Udazken Kulturalaren edizio berri bat hasiko da astelehenean

ITURRI ONETIK

Zerbitzuak euskaratzeko kanpaina

Zerbitzuak (dendak, aurrezki kutxak, banketxeak...) euskaratzeko kanpaina bat bultzatuko du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Kanpaina datorren urtean egingo da, baina egun gutxi barru Bergarako denda, aurrezki kutxa e.a.etan euskararen egoera zein den jakiteko ikerketa bat egingo du SIADECO enpresak. Ikerketa sozioekonomikoak egiten dituen enpresako kide den Kike Amunarriz Bergaran izan da egun hauetan azterketaren nondik-norakoak zehazten.

ESAN DUTE

"Himalayari beldurrik ez diot. Alderantziz, hurrengoan, lehen egindako akatsen berri izango dugu eta. Hala ere, guztiz osatu arte ez gara espedizioetan sartuko, Himalayara sufritzera ere ez baikara joango".

AMAIA ARANZABAL
Mendizalea
EGIN

"Mobilizazioekin gobernuari erakustarazi nahi diogu bere proposamenak enpleguaren kontra doazela".


J.A. SANCHEZ
CCOOekoa
EUSKADI IRRATIA

"Munduko koparako baliogarria den Iurreko proban eta Superprestijioko Zarautzekoan aurreko postuetan ibiltzeko prestatu naiz".

IÑIGO IGARTUA
Txirrindularia
ETB



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurriaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

Atseden zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragarintza

- ✓ Motoren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Galiastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo 25, BERGARA



SOL NACIENTE

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.30.

Astelehena: 17.00, 19.30,
22.15.

Asteartea: 19.30.

Asteazkena: 19.30.



SUPER MARIO BROS

Igandea: 11.30.



**QUI JU, UNA MUJER
CHINA**

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Michael
Crichtonen
(*Parque Jurásico*)

nobela batean
oinarritzen da.
Japon eta Estatu
Batuen arteko
harremanak zatartu
egingo dira emaku-
me bat hilik ager-
tzen denean. **Sean
Connery** eta
Wesley Snipes
gertatutakoa argi-
tzen saiatuko dira.

▼▼ Izen bereko
bideo jokoan
oinarrituta, bi iturkin
(**Bob Hoskins** eta
John Leguizano)
dira protagonistak.
Jokoan bezala,
hemen ere fantasia
eta egoera
harrigarriak izango
dira.

▼▼ Venezian
Urrezko Leota
eraman zuen filmea.
Zhang Yimou
zuzendaria eta **Gong
Li** aktorea berriz
ere elkarlanean
(*Sorgo rojo, Semilla
de crisantemo*),
emakume baten
ikuspegitik Txinako
egoera azalduko
zaigu.

Deiak

▼ **Margo erakusketa.** Jose
Antonio Laskurain eta Dani Lasku-
rainen lanak Kultur Etxean.

▼ **Komite Internaziona-
listek** antolatuta, arrazismoaren
aurkako erakusketa Pol-Polen.

▼ **Hitzaldia:** "*Depresión*". Hiz-
laria: Rosa Azkue. Asteazkenean
Setan Jubilatuetan.

▼ **Jubilatuena** Arabar Errioxara
irteera azaroaren 12an. 3.100 pta.

▼ **Elkarriren** firma bilketa la-
runbat eguerdian Plazan.

▼ **Gaztetxeen** aldeko mani-
festazioa Azpeitian larunbatean.
Autobus bat aterako da Frontoitik
16.00etan.

Ogia

▼ **Igandea 31:** Mizpildi.
▼ **Astelehena 1:** Ogizun.

**GOARDIAKO
FARMAZIAK**

▼ **Larunbata 30:** Puy/Amezua
▼ **Igandea 31:** Puy/Ruiz.
▼ **Astelehena 1:** Guallar.
▼ **Asteartea 2:** Estella.
▼ **Asteazkena 3:** Mozos.
▼ **Osteguna 4:** Camacho.
▼ **Ostirala 5:** Puy

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**


Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA

☎ 79 91 82 ARRASATE



▼▼ **EH Sukarra** eibartarren kontzertua iragarri du Gazttxeko asanbladak ostiral gauerako. Euskal Herriko Sukarrak bi disko ditu kalean: "EH Sukarra" (1992) eta "Irtenbide bakarra" (1993) izenburukoak. Orain dela bi urte Euskadi Gaztearen maketa lehiaketako lehen saria jaso zuen eta harrezkero izugarrizko arrakasta lortu du. Euskadiko plaza gehientsuenetan ibiliak diren Norton, Cesar, Mark eta Fakunen "Argi ibili", "Nerbixuak" edota "Zu gabe" asbestiekin gozatzeko aukera, beraz, gaur gaueko 11etatik aurrera Gazttxean.

PROFESIONALAK

- Soroa III eta Lasa III/
Arteaga eta Azkarate.
- Retegi II eta Beloki/
Lejardi eta Zezeaga
- Gabilondo eta Alberdi/
Badiola II eta Andueza.

Larunbatean,
16.30etan Udai
Pilotalekuan.



Ruben Beloki.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-TOLOSA

Lehen Erregional maila
Astelehena, 15.45. Agorrosin.

BERGARA-ZARAUTZ

Lehen mailako jubenilak
Igandea, 16.00. Ipintza.

BERGARA-ILINTXA

2. mailako kadeteak
Larunbata, 17.00. Ipintza.

BERGARA-AMAIKAK BAT

Lehen mailako infantilak
Igandea, 10.00. Ipintza.

ESKUBALOIA

BERGARA-UROLA

Senior mutilak
Larunbata, 16.30. Kiroldegia.

BERGARA-PULPO

Jubenil neskak
Larunbata, 18.00. Kiroldegia.

SASKIBALOIA

BERGARA-ZARAUTZ

Kadete neskak
Larunbata, 11.00. Kiroldegia.

PELOTA

BERGARA-AZKOITIA

Kadeteak

BERGARA-SORALUZE

Eskuz banaka
Igandean, eguerdiko 12etatik
aurrera, Bergarako Udai
Pelotalekuan.

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

LAKOTA^{O.E.}

BURDINAKI DENDA
INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA

Amillaga, 1
3. pabiloia
BERGARA

Tfnoa eta Faxe:
76 08 32

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

Gaztetxian aldeko manifa, polizia beteta!!

Arratsaldeko 7.25; pertsona bat dator Gaztetxera herrixa polizia beteta dagola esaten.

7.30; Plazara goiaz: malabarrak itxen hasten ga; ertzainak porrak etaraten dituzte, probokaziñua.

Manifa hastia erabakitzen dogu, beraien jokua jarraitxu barik, pankarta etaraten dou eta kix-kix; kasketian zarata entzuten da.

Plazako muro zapalduan bizkarra emoten jartzen ga, pareta kontran, eta eskuak goixan.

7.40; irtetzia erabakitzen dou, txilixoka hasten ga: poztasun eta urduritasunaz, inpotentzia eta ilusiñuaz. Frontoira ailegatzen ga, poliziak jarraitzen gaitxu; lemak aldatzen dia; "La policia nos quiere pegar y no hemos hecho nada"

8. Plazaraifño heldu eta... no se vayan todavía, aun hay más:

Hiru kotxe, denak lanzapelotekin, gu aluzinatzen!!! Azkenian, eskerrak emoten dotzau gu zaindu eta beraien lana hain ondo itxeagatik.

- Zeinek emon dotze ordena?

- Ez dabe ba pakia predikatzen?
- Zegaitxik probokatzen doskue?

Bergarako Gaztetxia

Lehenengo hitza beti euskaraz!!

Eskutitz honen bitartez oraintxe bertan hasi berri dugun kanpaina baten berri eman nahi dizuegu. Honekin lortu nahi duguna euskaldunak euskaldunari euskaraz hitz egitea da. Hau da, askotan, ezagutzen ez dugun pertsona batengana zuzentzen garenean, batez ere dendari eta tabernarien kasuan, erdarara jotzen dugu badakigulako pertsona horrek ziur erdera bada kiela. Beraz, guk erderaz egin diogun horrek, euskalduna ez garelakoan edo, erdaraz erantzuten digu. Eta ze pena, ez? Euskaldunon artean gurea ez den hizkuntza batean hitz egitea.

Beraz, onena lehenengo hitza beti euskaraz egitea da, eta gero zuzendu garen pertsona horrek tutik ere ez badu ulertu, orduan bai jo beharko dugula erdarara.

Lehenengo esan dudun bezala kanpaina hau aurrera eramatea dendari

eta tabernarien kasuan oso garrantzitsua da, askotan hauek bait dira lehenengo hitza ematen dutenak. Baina dudarik gabe beste guztiok ere oso garrantzitsuak gara kanpaina honetan.

Besterik gabe agur eta ea denon artean Bergara euskaldunago bat lortzen dugun.

Bergarako Euskal Herrian Euskaraz

BERRIGARA Gida 94

Iazko Gabonetan atera genuen BERRIGARA GIDA 93an zure telefonoa jarri ez bazenuen eta 94koan agertu nahi baldin baduzu, dei egiguzu lehenbailehen telefono honetara: 76 08 19 (Jardun). Orduategia: 18:00-20:00.

Tiira ba!



Josu Okina

Musika Eskolaren asanblada

Datorren ostegunean, azaroak 4, Musika Eskolako Ohizko eta Ez Ohizko Asanblada Orokorra egingo da, Musika Eskolan bertan, 19.30etan.

Gaztetxearen sententzia

Epaitegiaren aginduz, azaroaren 8an Gaztetxeak lokala uzteko epea amaituko da. Gaztetxeak hainbat ekitaldi antolatu ditu horren aurka protestatzen egiteko.

Gasa bideratzen

Naturgas enpresak aurrera darrai gasa etxetara bideratu ahal izateko lanekin. Aste honetan San Pedro eta Bidekurtzeta kaleetako lanak amaitzea espero zen. Oraindik ere hainbat kaletan, Barrenkalen eta Zubietan besteak beste, gasa bideratzeko lanak egitea falta da.



Errotalde Jauregiaren ondoan errepidea zuzendu eta espaloia haunditu egingo da.

Ibaiondo pasealekuko proiektua, urte amaierarako

Udaleko Hirigintza Batzordeak Ibaiondo pasealekua berritzeko proiektua aurkezteko asmoa du urte amaieran. Zubieta eta Agorrosingo zubien artean ibaiaren kanalizazioa burutu ondoren, oraingoan ezkerreko aldeko pasealekua txukundu nahi da eta horretarako egingo den proiektua ibilbide batek dituen ohizko apaingarriak jasoko lituzke, hala nola fa-

rolak, bankuak, zuhaitzak, etab. Inguruan diren garajeetarako kotxeentzako bidea ere aurreikusita egongo da. Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeburuaren hitzetan, *"ibilbidea oso egoera txarrean dago eta beharrezkoa zen honelako lan bat egitea. Atzeratzearen arrazoia oztopo formal asko egotea izan da"*.

Bestalde, Errotalde Jauregiaren parean dago-

en Gorlarako bidea zuzentzeko lanak burutzen ari dira egunotan. Lehen bertan zegoen errebuelta desagertu egingo da (errepideak lehengo zabalera izaten jarraituko du) eta, horren ondorioz, Kultur Etxe aldeko espaloia haunditu egingo da. Bestekaldean, egin berri diren etxe eta Udal Biltzearen behekaldean, plazoletatxo bat egiteko asmoa dago.

Eskola Soziala martxan

Asteazkenean Bergarako Artziprestalgoak antolatutako Eskola Soziala jarri zen martxan, UNEDen emandako *"La problemática mundial"* hitzaldiarekin.

Eskola honek zientzia sozialei buruzko formazioa eman nahi du, garai historiko bakoitzeko gertakizun sozialei buruzko balorazio etiko hobea lortu asmoz.

Aurtengo ikastaroak *"Claves fundamentales para comprender la crisis"* du izenburuztat eta urte amaiera bitartean *"Niveles de la realidad social y modelos de desarrollo"* (azaroak 17, 20.00etan UNEDen) eta *"Por qué discrepan los economistas?"* (abenduak 15) aztertuko dira. Datorren urtean ere Eskolari jarraipena emango zaio.



Astiaidiko zuzendari eta begirale ikastaroa

Euskal Begirale Eskolak eta JARDUN Elkarteak astiaidiko zuzendari eta begirale ikastaroak antolatu dituzte azarotik otsailera bitartean. Lehendabizikorako matrikulak 30.000 pta. balio du (pentsioa 15.000 pta.) eta begirale ikastaroarena, berriz, 25.000 pta.koa da (pentsioa: 27.000 pta.). Pentsioko tarifak osoak dira (lo egitea eta janaria) baina bakoitzak bere janaria eraman ezker astebukaera bakoitzeko 600 pta. izango da, beraz zuzendaritza ikastaroko pensioa (lo egitea eta gosaria) denera 4.200 pta. eta begirale ikastaroko pensioa (lo egitea eta gosaria) 7.800 pta. Pentsioa astebukaeretan ordaindu beharko da eta ez matrikula egiterakoan. Matrikula eta informazio gehiago 287488 edota 760819 (JARDUN) telefonoetan azaroren 2ra arte.

Ekin euskarari erakusketa Antzuolan

Antzuolan urriaren 29tik azaroren 7ra bitartean *Ekin Euskarari* erakusketa ikusgai egongo da Udal Aretoan, astegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara eta igande eta jai-egunetan eguerdiko 12etatik ordu bietara.



Espartero eta Marotoren arteko besarkadarekin amaitu zen Lehen Guda Karlista.

Justo Garate beka eman

Gotzon Iparragirre ondarrutarrak jasoko du

Gotzon Iparragirre Burboa ondarrutar gazteak eskuratu du Udalak kaleratutako Justo Garate beka-ren bigarren edizioa. Gotzon Iparragirrek 26 urte ditu, Historian lizentziatua da eta bere lanak "*Deba Erdialde eta Garaian II. Karlista-dan parte hartu zutenen prosopografia: Elgoibar, Eibar, Soraluze, Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta herrien biografia kolektiboa*" du izenburutzat. Epaimahaia, udal ordezkarietz gain, UNEDeko Xabier Larrañaga eta Jerardo Elortza, Eusko Ikaskuntzako Lola Valverde eta Koldo Larrañaga eta Iñaki Zumaldek (Justo Garateren izenean) osatzen zuten.

Bekaren 2. edizio hau Historiara dedikatuta zegoen eta guztira 3 lan aurkeztu dira. Joan den urtean Rosa Ramos Alafarori eman zitzaiona filolojia ("*Nafarroako ego-*

era demolinguistikoa") zuen aztergai eta datorren hilerako bukatuta izango da, Udalak berehala argitaratzeari ekingo diolarik. Urtez urte, beraz, gaia txandakatzen joango da; horrela, datorren urtean soziolojiako gaiak eskatuko dira.

Lan gutxi jasotzearen arrazoia galdetutakoan, Andoni Larrañaga zinegotziak zera dio: "*beke historiara mugatzeak lanen gutxitzea ekarri du. Jende gehiagok eskatu zituen bekaren baldintzak baina, antza denez, azkenean ez dira auzartu. Unibertsitatean esaterako uztailetik irailera bitartean ez da mugimendu handirik egoten eta horrek ere bere eragina izan dezake*".

Gotzon Iparragirrek 11 hilabate izango ditu lana burutzeko eta lanaren truke 935.000 pta. jasoko ditu.

THE



LOOK

Burberrys
OF LONDON


egizabal

PEYTON



CARTUJANO

PANAMA JACK



Dr MARTENS



M. Hernandez, R. Etxezarreta, A. Iturbe eta M.A. Elkoroberezibar, iazko epaimahaia.

Amodiozko gutunen lehiaketa

Lanak entregatzeko epea urtarrilaren 17an bukatuko da

JARDUN Elkarteak Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketa konbokatu du. Lehiaketa honetan 1979an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte eta lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanek gutun forma izan beharko dute eta DIN A-4 orrietan eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu ahal izango dira eta luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

Lanean ez da egilearen daturik jarriko (soilik lema bat) eta hauek sobre itxi batean sartu beharko dira, sobre horren azalean lanean jarri den lema bera jarri beharko delarik. Lanak eta egilearen datuak dituen sobrea beste sobre haundiago batean sartuta honako helbide honetara bidali beharko da: BERRIGARA astekaria. Errotalde

Jauregia, 20570 Bergara. Horretarako azken eguna urtarrilaren 17a izango da. Sari ematea otsailaren 14an, San Valentin egunean egingo da Kultur Etxean eta epaimahaia literatura eta kultura munduko pertsona ezagunek osatuko dute. Sariak honako hauek izango dira: 75.000 pta. irabazlearentzat, 2. saria 40.000 pta.koa izango da eta bergarar onenak, berriz, 25.000 pta. eskuratuko ditu. Lan guztiak Berrigararen esku geratuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko aukera izango du.

Aurreko edizioan 245 gutun jaso genituen (68 Bergarakoak) eta Oier Araolaza Arrieta eibartarrak eraman zuen lehen saria, Mikel Lagunilla Amosarrain arrasatearrak bigarrena eta, azkenik, Jon Sanchez Idigoras izan genuen bergararren artean onena.

Egineko IV. Mus txapelketa

Datorren astebukaeran Egineko IV. Mus txapelketako kanporaketak jokatuko dira. arratsaldeko 4retan Bergaran ondoko tokietan: Belengua, Oilagorra eta Arkupe tabernak eta Angiozar eta Osintxun. Elusun azaroaren 7an jokatuko dira arratsaldeko 4retan. Izenemateak 3.000 pta. balio izango du eta izen emateko jokatzen den tokietan egin ahal izango da. Herriko finala azaroaren 13an izango da Artatse elkartearen.

JARDUN eko autobusa Behobiara

Azaroaren 14an jokatuko den Behobia-Donostia antxitxiketa probara joateko autobusa antolatu du JARDUNek. Interesatuak lehenbailehen izena eman dezakete JARDUNen (Masterreka 13an) edota 760819 telefono zenbakian.

Senideaken konzentrazioa

Astero egiten ohi duen bezala, Senideak euskal presoen familiartekoen elkarteak konzentrazio bat burutu zuen asteartean Plazan, euskal presoek bizi duten egoera salatzeko asmoz. Senideakek dei egiten du asteartero, arratsaldeko 7etan Plazan izaten diren konzentrazioetan parte hartzera.



PINTURAS BERGARA, S.L.



Aranerreak, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO
PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...

"Deba Bailara bizi-bizirik"

Maltzaga-Urbinaren aurkako plataforma eratu berri da

Maltzaga-Urbina proiektuari aurre egiteko gure bailaran plataforma eratu da gure bailaran. Bere izena, Deba Bailara Bizi-Bizirik. Bailarako talde ekologistek (Mendia Bizirik, Eguzki, Eki eta Amilotx) bultzatu dute, eta beren asmoa "bailara babestu eta autopista edo autobidearen aurka dauden pertsonak plataforman batzea da".

Plataforma osatzen dutenek pasa den asteartean bilera berri bat egin zuten euren proposamenak zehazteko. Bilera hartan lehenik eta behin, Informazio Gune Partehartzaileen (IGP) baliogarrtasun demokratikoa zalantzan jarri dute. Deba Bailara Bizi Bizirik erantziz "administrazioak, proiektu jakin bat prest dauka, herritarrekin kontsultatu aurretik ere, eta, hortaz, badirudi jendearen eritzia jaso baino, IGPeekin aurretik markatutako proiektu jakin hori legitimatzea nahi dutela".

Autopista edo autobidearen aurkako plataformak IGPa kritikatzen jarraitzen du. "Buzoiak irekita daude, baina autopista egitasmoaren inguruko informaziorik ez da banatu, ez dakigu ezer trazaketaren inguruan. Hori kontutan izanik,

nola egingo diogu aurre proiektu ofizialari alternatibak eskainiz, IGPe-tan berari buruz ez baldin badugu informaziorik".

Jakingo duzuen bezalaxe, IGPe-tan irtengo den erabakia ez da binkulantea eta hori ere ez dute plataformakoek ondo

ikusten "IGPe-iritzia eskatzen digute, baina gero ez diote zertan kasurik egin beharrik. Horrek ez dirudi oso demokratikoa". Dena den, plataformako kideek aurkeztu dituzte IGPa buzoietara euren proposamenak eta alternatibak "eztabaidarako plataforma diren artean, ez diegu uko egingo".

"Autopistaren zentzugabekeria"

Baina IGPa kritikatzen arren, Plataformaren helbururik garrantzitsuenak Deba bailara babestu eta autopista edo autobidea

eraikitzearen aurka joatea da. Aurkakotasun hori arrazoitzeko zera adierazi dute. "Bailararen orografia estua, dagoeneko birrigunez eta errepedez josia dago. Herrietako sa-hiesbideak egiteko lanak ikusteak nabikoa da, lau bideko autopista baten trazaketak zer ekar dezakeen ikaraz penetsatzen".

Orografia aparta, talde honek autopista bailarentzako irteera ekonomiko bat denik zalantzan jartzen du. "Krisiala-tza da, egia da, eta hortaz, gastu izugarri horretan (gutxienez 70.000 milioi pzt) sartzea nola justifika daiteke, alde guztietatik gerrikoak estutzeko eskatzen digutenean? Eta gainera, autopista ote da irtenbidea? Deba Beheak aspalditik du lotura (A-8 autopista) Europako merkatu eta errepedeekin eta horrek lagundu al dio hango industriari?".

Horrez gain, proiektu horren finantziabide formula zalantzan jarri dute. "Bilbo-Behobiako peajea luzatzea onartezina da, Maltzaga-Urbina ez delako berez errentagarria. 10 urte barru amaitzen den kontzesio bat (A-8koa, Europako garestienetarikoa) beste hainbat urtetan luzatu nahi dute eta horrek, A-8aren ondoan dauden herrietarako dakarren kaltea begi bistakoa da".



Pasa den ostiralean Bergarako Kultur Etxean egindako asonblada.

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30



a. eme... interiores



a, eme...
interiores

Etxeko ekipamendu osoa

Coribai 9. Tfnoa: 70.15.02. ARRASATE

Pasa den larunbatean, eguerdi aldean, ALCEReko kideak kalera irten eta mahaiak jarri zituzten organu emaleak lortzeko asmotan. Guztira 45 emale berri lortu zituzten; halere, kopuru hori ez da dauden beharrei erantzuteko nahikoa. Hildakoek ere, organu emaleak izanez gero, beste gaiso batzuen bizitza salba dezakete, askorentzat bizirik jarraitzeko aukera bakarra baita trasplantea.

Giza organoak: beharrezko altxorrak

Beste pertsona batzuen organoak jaso dituzten 7 bergarar dira

Medikuntzaren garapena izugarria izan da azken urteotan eta horri esker jende askok bizirik jarraitzen du edota bere bizitza baldintzak hobetu egin ditu.

Aurrerapen horien artean nabarmenatarikoa, trasplanteak dira. Pertsona batek hil ondoren trasplanteei esker beste bati berak behar ez dituen organuak laga diezazkioke.

Baina emaileak aurkitzea oso zaila da eta kontutan izan behar da hildakoen %1ak baino ez dituela organuak emateko bete behar diren baldintzak betetzen. Horretarako beharrezkoa da ospitalean hiltzea eta heriotze faktoreak burmuineko lesioa, odol-jarioa edo traumatismoa izan beharko dira. Beraz, emailea izateko beharrezkoa da hil aurretik pertsona hori osasuntsua eta biziaz betea izatea.

Baldintza fisikoez gain, organu bat eman ahal izateko norberaren onespina ezinbestekoa da edo, bestela, hildako-

aren familiak eman dezake organuak trasplantezeko baimena.

Gaur egun ia edozein organu izan daiteke trasplantatua, baina giltzurrunetako trasplantea da eskari gehien duenetarikoa. Gure herrian guztira 7 pertsona izan dira beste baten giltzurruna hartzeko aukera izan dutenak,

baina oraindik beste batek ez du aukera hori izan eta astero dialisira joan behar izaten du. Dialisiari esker giltzurruna hondatuta dutenek bizitzeko aukera dute eta astero gaiso horiek 4 orduz garbitzen dute odola makinaren bidez.

Lehen adierazi dugun bezala gure herrian badi-

ra trasplanteak jasotako pertsonak, horien artean M^o Ignacia Usandizaga eta Felipe Aspiazu ditugularik.

Bi hauek urtetan dialisiari esker bizitzeko aukera izan dute, baina orain trasplante bati esker bizitza normala egiteko aukera dute. Nahiz eta giltzurrun berria izan, pasa den larunbatean organu emale berriak lortzeko egindako kuestazioan bertan izan genituen.

"Gu orain giltzurrun berriarekin primeran gaude, baina oraindik gogoratzen ditugu dialisiarekin pasa genituenak eta egoera horretan daudenei laguntzeko prest



Maria Ignacia Usandizaga eta Felipe Aspiazu, beste pertsona batzuk uzitako giltzurrunekin bizi dira.



Argazkian ikus daitekeenez, oraindik ere dialisian pasatako urteek arrastoak utzi dituzte Usandizaga eta Aspiazuren gorputzean. Felipe Aspiazuren besoon nabariak dira makinak utzitako markak.

nez hiru gaisori deitzen diete. "Hori momentu horretan giltzurruna jasotzea norentzat izan daitekeen egokiena aztertze-ko egiten dute, giltzurruna hartzeko orduan garrantzisua baita egun horretan, bertan, bakoitzak duen egoera fisikoa. Hori aztertzen ez baldin bada hain beldurgarria den erretxazoa etor daiteke" dioskue. Giltzurruna trasplantatzeko egiten den ebakuntza, beraiek diotenez, ez da beste munduko gauza "kirofanon sartu eta irtetzen zarenerako konturatu ere ez zara egiten".

Ebakuntza izan ondoren berehala igartzen dute, giltzurruna dutela "aurpegia puztu egiten da eta jatekoari dagokionez, oraindik ere, zaindu egin behar gara, baina bizitza normala egiteko gai gara. Lehen agian gauzak egiteko gogo gutxi genuen eta orain konturatu zara lehen gorputzaren egoeragatik ezin zenituela gauza batzuk egin eta orain bizitza berri bat bizi duzula. Berriz jaio gara!".

Emale izateko eman beharreko pausuak

Emale izateko txartel bat dago. Txartel horretan bakoitzaren datu pertsonalak bete behar dira eta gero ALCER Gipuzkoara (Balleneros, 22. 20011 Donostia) bidali. Ondoren erakunde horrek emale karneta emango dizu eta berau norberak eraman beharko du. Bergaran ALCERekiko harremanetarako 761262 telefonora dei daiteke eta M^o Ignacia Usandizagagatik galdetu.

gaude" adierazi digute.

Hori gutxi ez bada emale bihurtzean beste bati bizia ematen ari zara, eta ez hori bakarrik, beren eritziz. "Norbere buruan pentsatzea ere bada, orain organu baten beharrik izan ez arren, etorkizunean agian, organu baten beharra izan dezakezu eta zenbat eta emale gehiago izan, hobeto guztiontzat".

"Makina bati esker bizitzea gogorra da"

Aspiazuk bere bizitzako 7 urte eman ditu aste-oro lau orduz Bilbora joaten eta duela lau urtetik giltzurrun berriarekin bizi da.

Usandizaga 4 urtez egon da astero Donostiako ospitalera joaten eta honek giltzurruna duela hiru urte jaso zuen. "Medikuak giltzurrunak behar bezala ez dabilela esaten dizunean, mundua gainera erortzen

zaizu, jota uzten zaitu. Bizitzeko derrigorrez makina baten beharra edukitzea oso gogorra baita" esan digute.


Dialisian dauden gaisoek ezin dute bizitza normalik egin eta horren lekuko beraiek dioskue-na da "likidoekin kontu asko izan behar da. Guk ezin genuen frutarik, ezta horrelakorik jan, janarekin kontuz ibili beharra genuen. Horrela izan ezean, makinara joaten ginenean, honek lan gehiago egin behar izaten zuen eta gehiago sufritzen genuen".

Beraiekin berriketan geunden bitartean Usandizagak besoa erakutsi eta ikusitakoak harrিতa utzi gintuen. Izan ere besoon sekulako beltzuneak baitzuten. "Beltzune horiek zainak arteriekin lotzen dizkigutelako sortzen dira. Alde batetik odol zikina kentzen digute eta bestetik odol garbia sartu" esan digu Usandizagak.

Dialisian dauden gaisoek karnet berezi bat dute eta kotxe karabana batean edo daudenean euren izaera bereziagatik pasatzen uzten diete. Aspiazuk badu anekdotarik: "uholdeak izan zirenean derrigorrez Bilbora joan behar nuen, baina Galdakao inguruan edo ezin zen kotxearekin pasatu eta Ertzantzaren helikoptero bati esker ospitalera joan ahal izan nintzen. Horrekin adierazi nahi dut zein beharrezkoa den dialisia giltzurruna izorratuta dutenentzat".

"Giltzurrun berriarekin: primeran"

Horrenbeste denbora makinaren menpe izan ondoren trasplantearen ordua heltzen denean gaiso hauek etorkizuna beste ikuspegi batetik ikusteko aukera dute. Baina trasplantea posible dela jakiten dutenean ospitalekoek gutxie-



APPéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA**

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK

LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26, BERGARA

NAIKARI
TABERNA


MARGO
ERAKUSKETA

ABDON JUARISTiren
IKASLEAK



Masterreka 20 ☎ 76 57 71

**Organu donantea al zara?
Zergatik?**



Ibon Larrañaga
18 urte, ikaslea

Momentuan ez naiz baina aurrerago egingo nintzateke. Problemarik gabe.




Rosa Maria Aranzabal
21 urte, ikaslea

Ez naiz. Igual egunen batean egingo naiz. Ondo iruditzen zait organuak ematea.



Araceli Alarcia
60 urte, langilea

Beldurra ematen dit. Egingo nintzateke baina... ezin dut. Gainera zaharra naiz.



Luciano Arduya
52 urte, langilea

Oraingoz odola ematen dut bakarrik. Oraindik ez dut organoak ematearekin pentsatu. Ez dakit...

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

ZURICH

UNIBER

CAUDAL



HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

**Aldoka
Maldoka
TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

**BERGARA
Karrozeria**

Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



Ordutegiak

Komertzioaren ordutegiaz eztabaida izugarriak entzun eta ikusi izan ahal ditugu azken egunotan euskal zein espainiar komunikabide guztietan. Dendari txikien jarrera ezaguna bada haundienena ere aski aipatua izan da, bitartean kontsumitzaileen elkarte zein defendatzaileek euren jarrera nahasiak azaldu dizkigutelarik.

Argudioak era guztietakoak izanik ez nuke eztabaidan sartu nahi eta are gutxiago batzuen edo besteen alde agertu, orain arte, hainbeste zarata artean, sakoneko argudioak inork erabili ez dituelako.

Zilegia dirudi dendari txikiek euren lanpostu eta negozioak defendatzea, egun bizi dugun krisi egoera larri honen ondorioak beste askok baino gogorrago sentitu dituztelako, alegia.

Era berean ez dirudi zentzuz kanpokoa makrokomertzioetako arduradunak ordutegi librean alde agertzea, kompetenziaren legeak ez baitu ez sentimendurik ez besteeiok laguntzarik onartzen.

Guzti hori horrela delarik norberak bere interes ekonomiko hutsak defendatzeko beste hiritar guztion eskubideak erabiltzeari onartezina deritzot. Ez dut uste inolaz ere igandeetan dendak irekita egotea hiritarren bizi baldintzak hobetzea denik, ez eta komertzioetik aparte lan egiten dugun hiritarrok horretan dihardutenak jairik gabe, egunero-egunero lan egitera behartzeko eskubiderik dugunik. Eztabaida zalapartatsu hau argudio ekonomikoetan oinarritu beharko luketelakoan nago, ez besterik. Eta baten batek komertzioko langileen eskubideak ere aipatu beharko lituzke, ala ez?

Martin Garitano



Egoera bitxi bat

Asko jabetuko zineten garraio publikotan bidaiatuz, egoera bitxi ugari bizi ditzakegula. Batzutan topa dezakegun jendea, benetan arraroa iruditzen zaigu. Gainetik begirada bat bota ezkerro jasotzen dugun inpresioa edozein harritzeko gauza izan daiteke. Badaude beraien pentsamenduen barne murgilduta doazenak. Edo eta hitzegin eta hitzegin besterik egiten ez dutenek.

Asteburu honetan egoera benetan bitxia tokatu zait. Gasteizetik Madrilerako autobusa itxaroten, geltokian aurrez aurre gazte bikote bat tokatu zitzaidan. Begi marroi oso biziak zituen ile horidun neska bat, muxuka bere mutila agurtzen ari zen. Bi egun Madrilan igaro ondoren, etxera bueltatzeko autobusa hartzear nengoeiarik, neska berbera ikusi nuen, oraingo honetan beste mutil bat muxukatzen. Bizitzak dituen egoera harrigarri horietako bat dela eta, alboan esertzea tokatu zitzaigun. Bapatean konturatu zen neska nere aurpegia ezaguna egiten zitzaiola eta irrifar konplize bat izan genuen batak bestearekiko.

Nere jakinminaren zorionerako, lehen aipaturiko hitzegitea gustatzen zaion espezie horietakoa zen 20 urteko gasteiztar hau eta istorioa kontatu egin zidan. Senargaia gasteiztarra zen, Gasteizen agurtu zuena alegia. Lau urte darमतate elkarrekin irtetzen. Neska lagun bat ikustera zihoala esan zion eta udan Alikanten ezagututako amorantearekin zuen zita eginga Madrilan. Asteburu berarekin igaro eta Gasteizen bere senargaia itxaroten zuen. Hori da 20 urterekin bizitzari mamia ateratzea hori! "Una novia en cada puerto" famatuaren bertsio modernu bat. Tira!

Nora Askargorta

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23



LILURA

**EDERTZE
INSTITUTUA**

Bidekurutzeta, 7
☎ 76 31 71
BERGARA



DEBA


GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80
76 06 37

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariuma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

BERGARESA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte 8, ☎ 76 11 99 / 76 14 47

Faxa: 76 04 77 BERGARA

BOLINTXO


Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz 4, EIBAR

☎ 79 63 42 ARRASATE

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5

☎ 76 10 57

BERGARA

KONDE PANADEROKUA




Burdiñate, 1 ☎ 76 12 31



□ Lasa Jatetxea Ozaeta Jauregira 1994an

Joan den astean Lasa Jatetxea Ozaeta Jauregian (goiko argazkian) egokitu ahal izateko lanak hasi ziren. Oñatiko **Construcciones Ugarte** enpresak datorren urteko ekainerako amaitu beharko ditu berritze lanak eta **Koldo Lasaren** ustetan, "lan asko egin beharra dago baina nik uste dut 1994ko iraila aldera zabaldu ahal izango dugula. Ikusi egin behar obrak nola doazen..." Koldok bere jatetxea garai berriei moldatzeko toki aproposatzat jo zuen Ozaeta Jauregia (1549), oraingo

lokala (Bidekurutzeta 34an) txiki geratu bait zaio. Gaur egun, Lasa Jatetxea (Lasatarrek 1929an sortua) Euskal Herri eta Estatuko onenetarikoan artean dago Koldo Lasaren goi mailari esker eta pentsa daiteke datorren urtetik aurrera ospe eta izen haundiagoa lortuko duela oraindik. Horren aldeko apostua egiten dugu.



Koldo Lasa Estatuko sukaldari onenetakotzat jotzen da.



□ **Speaking english**

Joan den larunbatean Bergarako ingeles akademietako hainbat ikaslek **Cambridge Unibertsitateko PET diploma** jaso zuten Eibarko Armeria Eskolan izandako ekitaldian. Guztira, **Espolon School of English, La puerta al ingles** eta **UNEDetik** 37 ikasle aurkeztu ziren ekainean azterketa honetara eta 32k gainditu egin dute. Larunbatean horren agiria jaso zuten. Irakasleen ustetan oso emaitza onak lortu dira eta ikasleak gai dira dagoeneko atzerrian ingelesez defendatzeko. Pasaporte ona!!




□ **Holandarrak BERRIGARAN**

Asteartean **Annemie Scholten** eta **Gert Dassen** holandarren bisita izan genuen **BERRIGARAN**. **Amaia Zabaletak** lagunduta, Euskal Herriko hainbat txoko bisitatzen izan dira azken egunetan eta bereziki hemengo abeltzantza eta ortugintzarekiko interesa azaldu dute, biek ortugintza biologikoa lantzen baitute. Astelehenean, esate baterako, Gernikako ferian izan ziren eta txundituta bueltatu ziren han zegoen giroaz... eta dastatutako gaztaz. Asteartean, esan bezala, horren berri ematera etorri zitzaizkigun. Hurrengora arte!!

Zertan dibardute ba?

MARTIN RAMIREZ



Injenieritza ikasketak egin dituen 26 urteko bergarar hau igerilekuetako mantenimendu arduraduna izango da datozen hilabetetan, lanpostua lehiaketa publikora atera bitartean.

REYES AZKOITIA



Reyes Azkoitia 42 urteko Elosuko pelotariak 18 eta 22 galdu zuen Elgoibarreko Errosaixo kaleko jaietan Fernando Uriarte "Olinpi" 59 urteko elgoibartarraren aurka jokaturako partiduan.

Kabuzia
ARRAINDEGIA
Fraskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

Mari Carmen
ARRAINDEGIA
Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak
Kruz Gallastegi
☎ 76 15 90 / 76 40 73

JOSEFINA
• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...
Espaloia 4, ☎ 76 35 38

Gaitzizenak

Gerra aurrean batez be, gaitzizenak ipintzeko oitxura aundixa zeguan Eibarren. Etorri ziran bi kanpoko izkribiente eta beriala ipiñi zetsen gaitzizena.

Batari "el tubo de la risa" eta bestiar "Madame X". Bazan beste bat -Korriuetako zuzendaria- au be gaitzizenaren jabe zana.

Egun baten alkartu dira irurak "Rialtua"n Gantxusekin. Onak galdetu zetsen ia pozik zegozen Eibarren. Aiek erantzun:

- Bai, oso pozik gagoz. Jende jatorra da emengua. Baiña badute akats bat: gaitzizena beriala ipintzen doskue.

Orduan emakume antzeko abotsa zeukan Korriuetako nagusixak diño:

- ¡Qué raro! Yo llevo en Eibar 10 años y a mi todavía no me han puesto mote.

Gantxusek diñotsa:

- ¿Qué le han puesto?

- ¿A mi?

- Si, a Vd. le llaman "Kuixa".

- ¿Y qué es eso?

- ¡Conejo de la India!

Pedro Zelaia

Gaur egun Gaztetxea den bezala, orain dela 20 urte, notizia zen "Juventudes Parroquiales". Garai haretan ere musika jaialdiak antolatzen ziren, "The World" jazz taldeak eskainitakoa, esate baterako. Eta gaur, ostirala, Euskal Herriko rock talderik ospetsuenetakoa, EH Sukarra.



JAZZ KONTZERTUAREN ARRAKASTA HAUNDIA

"Juventudes Parroquiales" elkar-teak jazz kontzertu bat antolatzeko egindako ahalegin handiak merezi zuen eskerra jaso zuen, joan zen larunbatean sarrera bikaina izan baitzen udal pilotalekuan. Nazio desberdinetako sei musikariz osatuta dagoen "The World" taldeak guztiz erreperitorio bikaina eskaini zuen eta ondo merezitako txalo zaparrada eskaini zion Bergarako entzulegoak. Esan bezala, beraz, frontoian bildu

zirenak guztiz gustora irten ziren bertatik, izan ere, edozein musikazale asetzeko moduko erreperitorioa (jazz, samba eta bosa-nova nahasketak) eskaini baitzuen "The World" taldeak. Gure zorionik berroenak, beraz, "Juventudes Parroquiales" elkarteari kontzertu hau antolatzera izan duten arrakastagatik.

La Voz. Bikuña. 1973-X-30.

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak**

BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

EZOHIKO ETA OHIZKO ASANBLADA OROKORRA

EGUNA: Azaroak 4, osteguna.

ORDUA: 19.30.

TOKIA: Musika Eskolako Entseiu Aretoa.

Deialdia Bergarako Musika Eskolako bazkide guztiei egiten zaie.

BONOFOTOA



M. A. Ekoroberezibar

ENCARNITA PEÑA

ENCARNITA PEÑA ARANBURUK jaso du aste honetan
BONOFOTOko saria.

Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen etxearen izena
Egino-Mallea zen. Encarnitak jarri du erantzun zuzena eta
berarentzat dira BONOFOTOko 10.000 pztak.

ZORIONAK argazkian agertzen den ENCARNITARI.
Eta besteok, segi jokatzten!!




*Zein auzotan dago santutxu hau eta zer egin zuen auzo honek,
Angiozarrek bezala, 1928. urtean?*

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



BERGARAKO

OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika) - Koldo Eleizalde 28. ☎ 76 27 97 / Urgentziak: 90 81 09 30

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre 1, behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J.Alberto - Fraizkozuri 5, behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi 18, behea ezk. ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta 3. 2.B ☎ 76 38 54

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3. A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50
- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4 1.B. ☎ 76 32 06

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza 2, 1. ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOLOGIA Gabinetea (Logopedia, foniatria) - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita. ☎ 76 53 13
- ☎ 76 14 80

Lehen erregionala Bergaran

Bergara K.E.ko lehen erregional mailako futbol taldeak Tolosaren aurka jokatu du astelehenean, 15.45etan Agorrosinen.

Berrigara pelota kiniela

Martxan da aurtengo denboraldiko Berrigara Pelota Kiniela. Zaletuek Zezeagak eta Lejardik jokatzeko dituzten partiduez gain, beste partidu garrantzitsu batzutan ere boletoak betetzeko aukera izango dute 200 pta. ren truke herriko hainbat tabernatan. Partidu erdiko zein amaierako emaitzak asmatu beharko dira saria jasotzeko.

Eguraldi eskasa eta partaidetza haundia Fontsi Memorialean

Eguraldiak batere lagundu ez zuen arren, partaidetza haundia izan zen larunbatean Alfonso Miner "Fontsi" zenaren omenegindako IV. Kirol Memorialean. Goizeko 8etatik aurrera 20 talde lehian aritu ziren futbito txapelketa eskuratzeko asmoz. Azkenean, Garratxenak oñatiarrak eta Totamka Jotake bergararrak heldu ziren finalera, eta txantxikuek lortu zuten garaipena. Irabazleek trofeoa eta 30.000 pta. eraman zuten eta txapeldunordeek, berriz, trofeoa eta 15.000 pta. rekin konformatu behar izan ziren. Egun osan zehar jende dexente hurbildu zen Seminaria eta eguerdian salda eta txorixoa banatu zitzaizen bildutakoiei.

Hiruko saskiratzeen txapelketan Mikel Gallas-



20 futbol talde aritu ziren garaipena eskuratzeko lehian.

tegi (trofeoa eta 5.000 pta.) bergararra nagusitu zen Aritz Beistegiren (trofeoa eta 2.500) aurretik. Mendi bizikleta trabesia oso arrakastatsua izan zen. Euria etengabe ari zela kontutan izanik, 116 lagun (federatuak eta federatugabeak) izan ziren irteeran eta gehienak heldu ziren helmugara.

Antolatzaileen hitzetan, "eguraldia kontutan izanda pozik gaude lortutako partaidetzarekin. Pena izan da euria izatea baina ezin da asmatu. Memoriala urtemugarekin bat etorritik antolatzen da; ea hurrengo edizioetan suerte gehitxoago izaten dugun".

Igartuaren lehen garaipena

Iñigo Igartua bergarar txirrindularia aurtengo ziklokross denboraldiari hasiera ematen zion proban nagusitu zen igandean Kortezubin. Festina taldeko txirrindulariak hasiera hasieratik bere indarra erakutsi zuen eta helmugan, ibilbideko 18,2 Km. ak bete ondoren, bere arerioekiko alde nabarmenak lortu zituen: 2 minutu eta 37 segundu Guereñuri (Scott) eta 20 segundu gehiago 3. tokian sailkatu zen Taboadari (Mondariz). Honez gero Igartuak atzerrian 3 proba eta Kortezubikoa korritu ditu eta dagoeneko bere nagusitasuna azaltzen hasi da.



BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA



Pol-Poleko lehen finalistak

Pol-Pol mendizale taldea sortu berri zeneko argazkia da hau; orain dela 50 urte ingurukoa, beraz. Urbian izan zen ekitaldi bat jasotzen du: urte barruan 25 menditara igo zutenei dominak jartzea. Antzeko ekitaldiak beste bi ere antolatu ohi ziren: 25 mendi milatik gorakoak egin zituztenei eta lehenengo 100 mendiak egiten zituztenei ere jarri ohi zitzaizkien dominak. 1.000 metrotik gorako mendiak inguruan gutxi direnez, urrinagokoetara, Aralarra, Gorbeara, etab. etara joateko bizikleta erabili ohi zuten. Urbia, Irukuruzeta, etab. etan egin ohi ziren ekitaldiok.

Hona hemen zeintzu diren bertakoak ezkerretik eskumara: Ramon Solana, Conrado Pagaldai, Marcó, Jose Mari Ezpeleta, Andres Alzelai, Juan Mari Errasti, Zipriano Muruamendaraz, Jesus Urkiola, Dolores Mujika, Cecilia Bikuña (Jesusi domina jartzen), Erdabide eta Murua.


Estepan Plazaola
Argazkia: Jesus Urkiola

SANTOS IRRATI-TB
 ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

Zuek®

Sukalde altzarien erakusketa

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10



JAUJA KIROLAK
 Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

ETXEBIZITZA

Garajea hartuko nuke alokalruan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokalruan. ☎ 79 83 50.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deustun pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatuko nuke. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

Pisua salgai Artzamendi kaleko 13. zenbakian. ☎ 76 32 53.

DENETARIK

Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 42 59 15 (John).

Estufa japoniarra salgai. Egoera onean. Oso merke. ☎ 76 31 23.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Karabana bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

Seat 1.500 SS-94465 kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

Donostian pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 61 38 (Nerea).

Paseorako Peugeot bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 25 99.

Renault 18 diesel bat salgai. Familiarra. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Donostiara Ibaetara egunero joan beharra daukat. Kotxea eduki dezaket. ☎ 76 12 81.

Egunero goizeko 7etan Zumarraga edota Tolosara joateko kotxea behar dut. ☎ 76 48 78.

LANA

Esperientziadun emakume batek gutxitu sikiko, elbarri edota pertsona zaharrak zainduko lituzke. ☎ 76 53 25 / 21 34 31.

OHO, REM eta LZ klaseak. ☎ 76 24 31.

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Latin, Euskara eta Frances klaseak. ☎ 76 02 99.

Ilea eta bizarra mozttera joango nintzateke etxetxe. ☎ 76 41 98.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 23 67 / 76 22 90.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeok lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Geriatría ikastaro bat egin dut eta pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Ingelesezko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingelesezko klaseak. ☎ 76 31 36.

Ordenadorez lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

Arratsaldean ordu batzuk lan egingo nuke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

Ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 76 46 54.

OHO eta LH (Administratza) klaseak. ☎ 76 50 67.

Hildakoak

Angel Vicente Martinez

urriak 24, 36 urte

Maria Teresa Caballero Iturriaga

urriak 27, 77 urte

Jaiotakoak

Maitane Arteaga Urrutia

urriak 19

Eneko Lizarralde Delgado

urriak 23

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

ZABALSER, E.M.

**LA ESTRELLA
ASEGURUAK**

- *Zerbitzu Orokorrak*
- *Kontabilitate fiskal eta laborala*



Arruriaga, 3 BERGARA

☎ 76 58 98

☎ 79 65 53



**ZABETX
INSTALAZIOAK**

**BEROGAILU,
GAS
eta
ITURGINTZA
AZTERLANAK**

**BAINU
DISEINAKETA**

**Masterreka, 14
BERGARA**

☎ 76 54 14